

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2022KO AZAROAREN 15EKO  
BILERAREN AKTA.**

2022ko azaroaren 15eko 15:00etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Bestalde, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentearen ohiko deialdia tarteko, honako hauek bildu dira: **Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea** andrea, Osasuneko sailburua eta Administrazio Kontseiluko presidentea; **José Luis Quintas Díez** jauna, Osasuneko sailburuordea eta Administrazio Kontseiluko presidenteordea; **Nerea Urien Azpitarte** andrea, Administrazio eta Finantzazio Sanitarioko sailburuordea, eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde** jauna, Aurrekontuen zuzendaria eta kidea. **Hernando Lacalle Edeso** jaunak, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordeak, kidea denak, ezin etorria adierazi du, eta botoa eta ordezkaritza Aurrekontuen zuzendari Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunaren esku utzi ditu (ordezkaritza erantsi da).

Presidenteak quoruma dagoela egiaztatu du, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorriz. Horrenbestez, bertaratutakoek osoko bilkura eratu dute presidenteak antolatutako bilera egin eta bezperan jakinarazitako gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, presidente andrearen baimenarekin, Ente Publikoko zuzendari nagusia den **María Rosa Pérez Esquerdo** andrea Administrazio Kontseilu honetan ari da behin-behineko idazkari gisa, Kontseiluko idazkaria den **Susana López Altuna** andreak, Aholkularitza Juridikoko zuzendariordeak, azken orduko arazo bat izan duelako.

### GAI-ZERRENDA

**BAKARRA-** Sagardui sailburu andreak, Administrazio Kontseiluko presidentek, informazioa eman du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiak bihotz-kirurgia bateratzeko eta kautelazko neurriak mantentzeko prozesuaren egoerari buruz, kardiologia-zerbitzuko 14 medikuk eskatuta, eta horrek bateratze-prozesuan duen eraginari buruz.

Halaber, ebazpen judiziala betetzeko hartutako neurrien berri eman du: lekualdatzeak eragindako profesionalei eta eragindako zentroetako zuzendaritzei ordezkotza aukeren berri ematea eta plangintza kirurgikoari berriro ekitea.

Kontseiluan dauden pertsonen Osakidetzak aurkeztutako alegazioen edukia azaldu zaie, eta dokumentazioa, alegazioak eta errekurtsioa aurkeztea erabaki da.

Administrazio Kontseiluak OSAKIDETZako Zuzendaritza Nagusiak hartutako neurriak bermatzen ditu.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat ematen da, 2022ko azaroaren 15eko 15:30ean.



**Sin- María Rosa Pérez Esquerdo**  
Behin-behineko idazkaria



**Sin.- Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea**  
Presidentea

O.E.